



ONDARROAKO  
UDAL EUSKARA  
BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/5  
Eguna: 2012-06-19  
Hasiera-Amaiera: 18:40 – 20:15  
Tokia: Batzar-gela 2

## UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

### Batzartutakoak:

---

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Iera Arantzamendi	Udal Euskara lantaldeko kidea
Miren Urresti	EAJren ordezkaria
Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
Ama Lur Bedialauneta	Hitza egunkaria
Eduarne Arantzamendi	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria
Txomin L. Aramaio	AEKren, Radixu irratia eta Kafe Antzokiaren ordezkaria
Imanol Oruemazaga	Ondarroako Historiazaleak taldeko ordezkaria
Maite Rey	Batzordearen idazkaria

### Bertaratu ezina adierazi dutenak:

---

Gurutzne Anakabe	Zaldupeko eskolako ordezkaria
Itxasne Murillo	Txomin Agirre ikastolako ordezkaria

### AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.
2. Egindakoen berri ematea:
  - Hizkuntza irizpideen aurkezpenak udal sailetan
  - Nabigatu euskaraz kanpaina [www.ondarroa.eu-n](http://www.ondarroa.eu-n)
3. Eskariak eta galderak.  
Herri hizkeraren III. jardunaldia antolatzeko proposamenak.

### Esan-eginak:

#### 2. Egindakoen berri ematea:

- **Hizkuntza irizpideen aurkezpenak udal sailetan**

Batzordeburuak eta idazkariak azaldu dute gaia: Udalean aplikatu beharreko hizkuntza irizpideen aurkezpenak egiten hasi dira udal sail batzuetan: Gizarte Zerbitzuetan, Udaltzaingoan, Kontu-hartzailetzan, Idazkaritzan eta Kiroldegian.



ONDARROAKO  
UDAL EUSKARA  
BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/5  
Eguna: 2012-06-19  
Hasiera-Amaiera: 18:40 – 20:15  
Tokia: Batzar-gela 2

Imanol Oruemazagak kezka azaldu du herrian ikusten diren karteletan dauden akatsengatik. Horri buruz hitz egin da eta egokia iruditu zaie batzordekideei Batzordeko idazkariaren proposamena: Udal Barriak argitaratzen den bakoitzean, aholku sorta bat ematea euskara zuzena erabiltzeko.

- **Nabigatu euskaraz kanpaina [www.ondarroa.eu-n](http://www.ondarroa.eu-n)**

Azaldu da nola ipini den lotura hori Ondarroako udalaren webgunean hasierako orrian kanpaina zabaltzeko.

### 3. **Eskariak eta galderak.**

#### **Herri hizkeraren III. jardunaldia antolatzeko proposamenak.**

Aurreko jardunaldiak nola antolatu ziren kontuan izanda, proposamenak egiteko eskatu zaie batzordekideei.

Horrez, gain gai hau aztertu da:

#### **Labayru ikastegiaren proposamen herri hizkeraren gainean.**

Labayru ikastegiak Udalari egindako eskaintza; batetik, Garoa berrargitaratzeko – 100 urte pasatu dira estreinakoz argitaratu zela eta edizio berezia egin nahi dute– eta bestetik, Josu Arrizabalaga ondarrutarrak Ondarroako herri hizkeraren gainean egindako berbategia moldatu sarean argitaratzeko.

Azaldu da Labayruk egindako proposamenen nondik norakoa eta batzordekideei interesgarria iruditu zaizkie bata zein bestea.

Miren Urrestik esan du balio handiko proiektuak direla, estrategikoak bihurtu beharrekoak, eta azpimarratu du proposamenak dakarren atal bat: Ondarroako berbetaren normalizazioa, alegia, hizkuntza politikaren oinarria delako. Horrez gain, atzean Labayru izatea berme bat dela gaineratu du.

Batzordeko idazkariak gogoratu du ikusi beharko dela aurrekontuan zer aukera dagoen.



Batzar-zk.: 2012/5  
Eguna: 2012-06-19  
Hasiera-Amaiera: 18:40 – 20:15  
Tokia: Batzar-gela 2

## **ERABAKIAK**

- Batzar-agiri hau onartu da: 2012-05-08koa.
- Udal Barriak argitaratzen den bakoitzean, aholku sorta bat ematea euskara zuzena erabiltzeko. Inmobiliariei eta inprimategiei zuzenean eskaini Udal Euskara Zerbitzuaren laguntza.
- Hurrengo batzar-egun hau finkatu da:
  - Irailak 4, 9:00etan: Letren Jaialdiaren IV. edizioa antolatzeko.

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua  
Leire Beitia

Idazkaria  
Maite Rey